

/ Nabarmentzekoak

- > HAPO berriaren behin betiko dokumentua emanda talde politikoei azken berrikuspena egiteko (2. or.)
- > Serbia, Mexiko eta Getxoko emanaldia Folklore Jaialdian (3. or.)
- > 'K.OS' proiektua aukeratu dute Juana Bizkarra egonaldi artistikoaren bosgarren edizioan (4. or.)

*Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana (5. or.)



Kontzertua. Hilak 19, larunbata, 18:00etan, Kristo Eroslearen parrokian, zuzendaritza koraleko 43. kurtsoaren azken kontzertua.

Getxo Eszena Kalean. Antzerkia. Hilak 26, larunbata, 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Eraitsi S.L.", Goitiberarekin.

**A-
GENDA**

Paellen Lehiaketan segurtasuna, ingurumenarekiko errespetua eta garbitasuna handitzeko dispositiboa mantenduko du Udalak

Udalak iazkoaren antzeko dispositibo bat jarriko du martxan uztailaren 25ean, ostiralean, Aixerrrotan egingo den Paellen Lehiaketan, segurtasuna, ingurumenarekiko errespetua eta garbitasuna areagotzeko. Izan ere, Itxas Argia elkarteak lehiaketa antolatzen duen esparrutik kanpo dagoen espazioan 2024an hartutako neurriak eraginkorrak izan ziren eta ez zen gora-behera aipagarririk izan. Getxoko Paelletarako eta jai ugaritarako (Algorta, Romo, Portu Zaharra eta Areeta) segurtasun-xedapenak ezaugaraziko dira laster:

Ingurunea eta azpiegiturak

Udaleko arloek areagotu egin dituzte Nazioarteko Lehiaketaren eragina murrizteko neurriak. Ingurumena zaintzeari, hondakinak biltzeari, segurtasunari, ebakuazio-bideei eta osasun zerbitzuei lotutako eta suteen kontrako neurriak dira, baita Udaleko arlo desberdin eta gazteen koadrilen artean ezartzen joan diren hobe-kuntzak ere.

Ingurumen Sailak gogoratzen du erabat debekatuta dagoela Pinudi ingurura sartzea. Pinudiaren eta txilardien gunerako sarbideak hesolen eta zinten bidez balizatu dira, eta, horrez gain, eremu naturalekiko errespetua sustatzeko, eta zuhaitzak iltzeen, soken, inausketen eta abarren bidez ez kaltetzea eskatze-kartelak jarri dira.

Gainera, beste lan hauek egingo dira:

- Segalana guneraren ondoko eremuan, larrialdi-zerbitzuak eta garbiketa-kamioiak sartu ahal izateko bideak irekitze aldera.
- Argi-puntuak kokatuko dira.
- Perimetro berean, ur-puntuak eta mahukak, hiru kokapenetan.
- Edukiontzien kopurua handitu-



ARRETA ZUZENA EMATEKO ETA SENTSIBILIZATZEKO GUNE MOREA JAIETAN

Udalak aurreko urtean ere Gune more bat jarriko du Paelletan eta udako jaietan, eraso biktimentzako zaintza zuzena eta berehalakoa, eta indarkeria matxistari buruzko sentsibilizazioa ematea bermatzeko espazio batean. Gune morea toki segurua eta lasaia izango da, karpa baten azpian, eraso jasan duen emakumeari edo LGTBI-QA+ pertsonari laguntzeko eta emakume profesionalak artatu eta aholka diezaiten. Kokapenak:

- **PAELLAK:** Uztailaren 25eko arratsaldean eta gauean, Aixerrrotako landetan.
- **SAN INAZIO JAIK:** Uztailaren 29tik abuztuaren 1era arteko gauetan, Algortako etorbidean, batzokiaren ondoan.
- **ROMOKO JAIK:** Abuztuaren 2, 7 eta 8ko gauetan, Santa Eugenia kalean.
- **PORTU ZAHARREKO JAIK:** Abuztuaren 9tik 11ra arteko gauetan, eta 12ko arratsaldean eta gauean, txosna gunearren sarreran.
- **MESEDEETAKO JAIK:** Irailaren 26 eta 27ko gauetan, Andres Larrazabal kalean.

Gune morean artatzen duten profesionalekin harremanetan jartzeko aukera ere badago, 747407311 telefono-zenbakira deituta.

ko da eta ekitaldiaren perimetro osoan jarriko dira.

- Hondakinaren gaikako bilketa egingo da eta sortutako hondakinak jatorrian bereizteko poltsak banatuko dira.
- Ekitaldia amaituta eta ondorengo egunetan, ontzien, beiraren, paperaren, organikoaren eta gainerrako zatikiaren bilketa selektiboa egingo da, antzemandako treskin batera, eta bukatzeko, egurra kenduko da, pilatuz joango dena.

Bitartekotza koadrilekin

Aurreko urteotan bezala, arkitekto batek eta gizarte-hezitzaile batek osatutako lantalde bat kontratatu da, esparru ofizialaren pareko jaiaren parte hartzen duten koadrilekin bitartekaritza-lana egin dezaten.

Iragan astelehenean, hilak 7, lehenengo bilera egin zuten honako gai hauei buruzko informazioa eta aholkularitza eskaintzeko: segurtasunaren garrantzia bide nagusiak eta ebakuazio-bideak errespetatuz, pasatzea eragozten duten eraikuntzak egin gabe; hondakin gehiegi ez sortzea, esparruan dauden edukiontzia behar bezala erabiliz eta bertako fauna eta flora errespetatuz; etxolak eraikitze zementua ez erabiltzea, solairu bakarrekoak izan beharko baitira; muntatutako egiturak seguruak izatea, koadrilekin eta bisitariarentzat arriskuak ez izateko, eta ekitaldiaren egunean bertan izango diren zerbitzuei buruz informatzea: indarkeria matxistaren kasuak artatzeko Gune morea, gaueko bus-zerbitzua, anbulantzia-postua eta Udaltzaingoa-ren postu finkoa.

Horrez gain, pasa den ostiraletik, hilak 11, taldea Aixerrrotako zelaietan dago gomendioak betetzen direla bermatzeko. Bisitak hilaren 24ra arte luzatuko dira.



UZTAILAK 20 IGANDEA

Santa Anako jaiak. 11:00etan, futbol txapelketa; 12:00etan, txikigune; 13:00etan, paella txapelketa; 17:00etan, ur guda; 17:30ean, aparra; 18:30ean, herri kirolak; 19:30ean, sari banaketa; 23:00etan, zinea, eta 24:00etan, jai amaiera.

Kontzertua. Kristalezko kioskoa. 13:30ean, Muxikebarriko aurrealdean, Jon Gurrutxaga & Urbil Artola. Sarrera doan.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Ballet Folklórico de la Universidad de Colima (Mexiko). 3€.

UZTAILAK 25 OSTIRALA

LXX. Nazioarteko Paella Lehiaketa. Aixerrotan. 10:30ean lehiaketarako izen ematea. 12:00etan txalaparta deia, aurrekoa eta dantza emanaldia Itxas Argia dantza taldekoen txikien eskutik. 13:30-14:30 Paellen aurkezpena. 17:30ean sari banaketa eta 18:30ean erromeria.

UZTAILAK 26 LARUNBATA

Estropadak. 11:00etan, beteranoen ABE Ligako estropada (Getxo Arraunekin); 17:25ean, Getxoko Estropaden XVII. Ikurriña-J.A. Agirre Lehendakariaren XXI. Omendaldia (Eusko Tren Ligako emakumezkoen proba) eta 18:20an, Getxoko Estropaden XLVII. Ikurriña J.A. Lehendakariaren XXI. Omendaldia (Eusko Label Ligako gizonezkoen proba).

Santa Anako jaiak. 13:00etan, meza eta eskal dantzak.

Getxo Eszena Kalean. Antzerkia. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Eraitsi S.L.", Goitiberarekin. Sarrera doan.

Antzeztutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraie-tatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismoko bulegotik. 6€ (12 urtetik behar-rakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdkxi86>

UZTAILAK 18 OSTIRALA

Santa Anako jaiak. 17:00etan, Txikigune; 19:00etan, txupinazoa eta buruhandiak; 20:30ean, sardina jana, eta 22:30ean, kontzertua.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Itxartu Dantza Taldea (Getxo). 3€ (abonua 7€).

UZTAILAK 19 LARUNBATA

Santa Anako jaiak. 10:00etan, xake txapelketa; 11:00etan, saskibaloi txapelketa; 12:00 eta 18:00etan, txikigune; 13:00etan, tortilla txapelketa; 14:00etan, ipuin kontalaria; 16:00etan, Koadrila txapelketa; 18:00etan, igela eta txapela txapelketak; 20:30ean, saiheski jana, eta 22:30ean, kontzertua.

Getxo Eszena Kalean. Zirkoa. 18:30ean, Areetako Geltokia plazan, "Claudette", Balancetoi & Maleta Company. Sarrera doan.

Nazioarteko Folklore Jaialdia. 20:00etan, Muxikebarrin, Kud Branko Cvetkovic (Serbia). 3€.

Kontzertua. 18:00etan, Kristo Eroslearen parroki-an, zuzendaritza koraleko 43. kurtsuaren amaierako kontzertua. Antolatzailea: Euskal Herriko Abesbatzen Elkarte.

Antzeztutako bisitak. Portu Zaharra bere sustraie-tatik. Irteera: 11:00etan, Ereagako Turismoko bulegotik. 6€ (12 urtetik behar-rakoak doan). Info: <https://labur.eus/uzdkxi86>

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jaurlaritzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Getxoberri eGetxoko Udaleko Komunikazio Sailak kaleratutako argitalpena da eta horretan udalari eta tokiko bizitzari lotutako albisteak eta informazioak agertzen dira astero.

Erredakzioa: Nekane Ardanza. Monika Rodrigo, Iñigo Olondo. Urgull kalea z.g., 4. Tel. 94 466 03 20. 48991 Getxo. e-posta: getxokoudalaprensa@getxo.eus Arte arduradunak: Diseinu eta Komunikazioa Aulesti S.L. Inprimaketa: Comeco Gráfico Norte, S.L.U. Banaketa: Joal Express, S.L. Gordailu legala: BI-388-87

Erredaktoreburua: Itziar Aguayo.

getxoBerri

HAPO berriaren behin betiko dokumentua emanda talde politikoei azken berrikuspenera egiteko

Gobernu Taldeak HAPO, Hiri Antolamenduko Plan Orokor berriaren behin betiko dokumentua entregatu zien aurreko astean udaleko oposizioko talde politiko guztiei, azken berrikuspenera egiteko. Hala, urrats erabakigarria eman du udalerraren hirigintza-etorkizunerako funtsezkoa den tresna hau izapidetzeko prozesuan.

Joan den ekainean Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Administrazioaren Zuzendaritzaren aldeko Ingurumen-Adierazpen Estrategikoa (IAE) jaso ondoren, Udala orain estatuko administrazioen menpeko nahi-taezko bi txostenen zain dago. Horiek jaso ondoren, hurrengo urratsa ezohiko informazio-batzorde bat

deitzea izango da. Horren ostean, HAPO behin betiko onartzea eztabaidatuko da ezohiko osoko bilkura batean.

Horixe izango da datozen urteetan Getxoko hiri-garapeneraren eredia zehaztuko duen Plan berria indarrean jartzeko egin beharreko azken izapidea.

Sarenesk, asmo, irizpide eta estilo propioarekin ekiten duten emakumeak bultzatzeko programa

Getxolan-Ekonomia Sustatzeko Arloak, Emakumeekin Euskadiko emakume ekintzaile eta enpresari- elkartearekin lankidetzan, Sarenesk programa jarri du abian. Doako programa bat da, ekiten ari diren edo dela gutxi ekin duten emakumeentzat, munduan egoteko duten moduan ekin nahi dutenentzat eta beren negozioa eta konfiantza indartzeko bultzada humanoa, feminista eta praktikoa behar dutela sentitzen dutenentzat.



emozionala, estrategikoa eta kolektiboa ere eskainiko die (banakako saioetan online aukera bat ere).

Programak hainbat atal ditu:

- **Banakako mentoring pertsonalizatua.** 4 saio parte-hartzaile bakoitzeko, negozioan, brandingean, komunikazioan, finantzetan edo coachingean adituak diren emakumeekin, beldurrak desblokeatzeko, tarifak berrikusteko,

benetako helburuak markatzeko eta proiektuaren helburuarekin berriz konektatzeko diseinatuak.

- **Taldeko saioak.** Konfiantzazko espazioak (iritzirik gabe), autoestimua, lotsa, auto zaintza eta mugak jartzeko, negoziatzeko eta balio pertsonalean irimotasunez eusteko gaitasuna lantzeko.
- **Tailer irekiak eta esperientziakoak.** Egoten, saltzen eta kontatzen ausartzeko.
- **Networking sortzailea AA-rekin eta artearekin.** Goiz bat AAren (Adimen Artifiziala) tresnak ezagutzeko, emakumeen negozioa sustatzeko eta artearen, sormenaren eta sarearen bidez beste ekintzaile batzuekin konektatzeko.

Argibideak eta inskripzioak: <https://www.getxo.eus/eu/promocion-economica/>

Garapenerako Lankidetzako proiektuetarako diru-laguntzak

Datorren abuztuaren 11ra arte zabalik egongo da txirotutako herrialdeetan etekin asmorik gabeko entitateen bitartez aurrera eraman beharreko Garapenerako Lankidetzarako proiektuetarako diru-laguntzak eskatzeko epea. Horietarako 365.900 euro zuzenduko dira, eta haurren aldi baterako harrierarako beste 3.150 euro, aipatutako eskaera epe berberarekin. Bestalde, deialdiaren barruan, beste 12.600 euro izango dira Ekintza Humanitariarako. Hori- etarako eskaerak abenduaren 1era arte aurkeztu ahal izango dira. Azken horiek krisi egoerei aurre egiteko izaten dira, natura kausek edo gatazkek eraginda, edo bapateko lehen mailako beharrak asetzeko ere.



Diru-laguntzak lankidetzan alorrean lan egiten duten pertsona juridikoei eskatu ahal izango dituzte, esate baterako, GGKEek, kongregazio erlijio-kongregazioek... Eskaerak Udaleko webgunearen Administrazio Elektronikoko Bulegoan aurkeztu behar dira. Informazioa/izenematea: www.getxo.eus/eu/cooperacion-al-desarrollo/subvenciones

10 euroko "GetxoBonoak" geratzen dira

Bere unean GetxoBonoak aktibatu zituzten pertsonak oraindik 10 euroko bonoak truka ditzakete kanpainari atxikitako 100 establezimendu baino gehiagotan. 5 euroko bonoak agortu badira ere, oraindik 10 euroko 3.000 GetxoBono baino gehiago daude eskuragarri programari atxikitako establezimenduetan trukatzeko. Horregatik, pertsona guztiak animatzen dituzte aukera hau aprobetxatzera eta tokiko sare ekonomikoa babestera: <https://www.getxobono.com/list> Udalak ekainaren 17an GetxoBono kanpaina jarri zuen martxan, eta guztira 16.070 deskontu-bonu egon dira trukatzeko (5 euroko 3.520 eta 10 euroko 12.550).

STAFF

Nazioarteko Paellen Lehiaketak 70 urte beteko ditu

Aixerrotako zelaietan datorren ostiralean, uztailak 25, ospatuko den Nazioarteko Paellen Lehiaketak aurten bere 70. edizioa beteko du. Tradizioak agintzen duen bezala, Itxas Argia elkarteak tona bat egur eta 300 bat kilo arroz banatuko ditu 200 toldotan egongo diren kuadrilla parte hartzaile ofizialen artean.

Udaltzaingoak esparrura sartzeko baimena emango du 08:00etatik 10:30era, zamalanetarako (ibilgailuak ezin izango dira barruan geratu). Aparkatzeko hainbat gune ere egokituko dira, horietako bat mugikortasun urriko pertsonentzat.

Arreta berezia jarriko da trafikoa- ren behin-behineko desbideratzeetan; izan ere, ibilgailuen presentzia handia dela eta, noranzko bakarreko ibilbide bat ezarriko da, trafikoa- ren arintasuna errazteko, eta pilaketak eta auto-ilarak saihesteko.

Jaiari dagokionez, ohiko egitarauari jarraituko dio: 10:30ean lehiaketan izen-ematea izango da; 12:00etan txalaparta, aureskua eta dantza alardea Itxas Argia-ko txikiekin; 13:30etik 14:30era paellen aurkezpena; 17:30ean sari banaketa, eta 18:30ean erro-meria.

Lesboserako arroza

Aurten, Itxas Argia elkarteak Zaporeak GKE donostiarrarekin elkarlanean aritzen den getxotar talde bati lekua utziko dio. Gaur egun,



**INDARKERIA
MATXISTARIK GABEKO
EGUNAK ETA GAUAK
DÍAS Y NOCHES LIBRES
DE VIOLENCIA MACHISTA**

Getxoko jaietan eraso matxistarik bizi edo ikusiz gero, ez izan zalantzarik eta abiatu puntu morera (747 407 311).

LAGUNTZEKO GAUDE!

Si vives o ves agresiones machistas en las fiestas de Getxo, no dudes en acudir al punto morado (747 407 311).

¡ESTAMOS PARA AYUDARTE!

Greziako errefuxiatu-esparruetan janaria ematen dihardu Zaporeakek.

Kuadrillek eta interesa duten pertsonak arroza eman ahal izango dute Paella festan bertan, hilaren 25ean, eta janari hori jasotzeko gonbidapena udalerriko saltokietara ere luzatuko dute, paella lehiaketa egin bezperan, uztailaren 24an. Ematen diren pakete guztiak Lesbos uhartera bidaliko dira.

Ikasturte honetan, 1.500 kilo arroz inguru bildu dituzte San Nikolas ikastolan, Romo ikastetxe publikoan eta Europa ikastetxean, helmuga berarekin.

Santa Anako jaiak ostiral honetan, hilak 18, hasiko dira

Santa Anak dena prest dauka ostiral honetan, hilak 18, jaiak hasiteko. Txupinazoaren jaurtiketa, buruhandiekin batera, 19:00etan izango da, ondoren ohiko sardina-jana 20:30ean, eta Txerri Ugerrak eta Dj Edulis eta Naparra taldeen kontzertuak 22:30ean helduko dira. 17:00etatik aurrera Txikigunea ere muntatuta egongo da.

Larunbateko (uztailak 19) eta igandeko (uztailak 20) egitaraua aurreko urteotakoaren antzekoa izango da. Larunbat goizeko jarduera nagusiak xake eta saskibaloitxapelketak, ipuin kontaketa saioa eta Tortilla Lehiaketa izango dira. Arratsaldean, Kuadrillen Lehiaketaren, Igel eta Txapel Txapelketaren eta Saiheskiaren txanda izango da, eta gauean, Cobain's Echo eta Mary Rock taldeen kontzertuak izango dira, egunari amaiera emateko.

Igandean futbol Txapelketa eta paellak izango dira goizean, eta ur gerra, aparra, herri kirolak eta sari banaketa arratsaldean. Eta ohiturak agintzen duen bezala, 23:00etarako



zinea aurreikusi da, eta ordubete geroago jaien amaiera. Hala ere, auzoko zaindariaren egunean, uztailaren 26an, 13:00etan, meza eta euskal dantzak izango dira.

Jardueren ordutegi guztiak agendan kontsulta daitezke.

Serbia, Mexiko eta Getxoko emanaldia Folklore Jaialdian

Muxikebarrin Nazioarteko Folklore Jaialdia izango da asteburu honetan, aurten 40 edizioa beteko duena. Ostiralean, hilak 18, Itxartu Dantza Taldearen emanaldia izango da; larunbatean, hilak 19, Serbiako Kud Branko Cvetkovic taldearena eta igandean, hilak 20, Mexikoko Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoaren txanda.

Etxeko Itxartu Dantza Taldeak irekiko du aurten lehiaketa eta oraingoan Nafarroako iparraldeko herri menditsua den Luzaideko inauterriak izango ditu ardatz.

Bestalde, Serbiako taldea 1945ean sortu zen, sortzaileak izan ziren marinelen eta trenbideko langileen kultur elkarte amateur gisa. Horregatik, Kud Cvetkovic Serbiako Tren Konpainiaren babespean dago. Bere bizitzako 70 urteetan Serbiako tradizio folklorikoa mundu osoan zehar sustatzen duen erakunde kultural ezagun eta errespetatua bihurtu da.

Eta Colima Unibertsitateko Ballet Folklorikoak bere sustraiekin lotuko



gaituen bidaia eszenikoa erakutsiko du, hain zuzen ere, antzinako ototzetatik hasi eta orain artekoa.

Emanaldi guztiak 20:00etan izango dira, eta sarreraren prezioa 3 eurokoa izango da (abonua 7 euro hiru egunetarako).

Picassoren *Gernika* margolanean inspiratutako zirku garaikideko ikuskizuna da, gerraren basakeriaz hitz egiten duena

'K.OS' proiektua aukeratu dute Juana Bizkarra egonaldi artistikoaren bosgarren edizioan

K.OS Donostiako ZirKuSS konpainiaren zirku garaikideko pieza da Getxo Kulturak antolatzen duen Juana Bizkarra Egonaldi Artistikoaren bosgarren edizioko epaimahaiak hautatutako proiektua. Picassoren *Gernika* lanean oinarrituta, gerra-gatazketako eskrupulurik ezaz hausnartu nahi du, besteak beste. Proiektu berri hori martxan jartzeko egonaldia Muxikebarri zentroan izango da abuztuaren 23tik irailaren 19ra bitartean. Horren azken egunetan, bertan izango da ere proiektuaren aurrestreinaldia, irailaren 18an eta 19an, 20:00etan. Gainera, hilaren 17an entsegu irekia egingo da ordu berean.



kutik. Horren bidez, 1937an gertatutako tragediatik bizirik aterazen Luis Iriondoren testigantza islatzen da, eta haren testigantzak ere inspirazio iturri izan dira ZirKuSSentzat.

Pasarte bitartez, askotariko teknikak tartekatzen dira: akrobatziak duo eta indibidualetan, lurzoruko ariketak, aireko ariketak oihalekin, akrobatiko portéak eta mugimendu espresiboa. Musikak garrantzi handia du ikuskizun honetan, eta Borja Antonek konposatu du, Musikene Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegiaren laguntzarekin.

ZirKuSS

ZirKuSS 2022. urtean sortu zen, zirku garaikideak publikoa hunkitzeko duen gaitasunaren konbentzimenduari. Premisa horretatik abiatuta, formatu handiko ikuskizunetan murgiltzen dira, hala nola bere lehen lana, *Sustrai*, eta baita dimentsio txikiagoko beste batzuetan ere, *Hazia*, adibidez.

Lander Brionesen zuzendaritza artistikoa eta Maialen Alberroren koreografiak dituela, K.OS lanak zortzi artista biltzen ditu, Picassoren lan ospetsuaren sinboloak irudikatzen dituztenak. Horien bitartez, ZirKuSSk jendeari bandoez eta garaiez ulertzen ez duen basakeriaz hitz egiten dio, biztanleria zibila erabaki politikoaren biktima

bihurtzen duena. Lan honek mugimendu akrobatikoa eta narrazio poetikoa uztartzen ditu, zuri-beltezko estetika batean oinarrituta, hitzik gabe, gerraren izugarrikerian zehar bidaia emozional bat eskainiz, baina gerra horretatik bizirik ateratzea lortzen duten pertsonen samurtasuna alde batera utzi gabe.

Ikuskizunaren dramaturgia zortzi eszenatan egituratzen da, horietako bakoitzak pertsonaia bat protagonista duela: zezena, zauritutako zaldia, federik gabeko soldadua, biloba, kinkea daraman emakumea, ama eta bere haurtxoa eta usoa. Ondorioa koardoren beste sinbolo boteretsu baten eskutik dator, begiaren es-



Jon Gurutzagak & Urbil Artolak "Kristalezko Kioskoa" zikloari emango diote amaiera

Jon Gurutzagak (ahotsa, gitarra akustikoa eta Stomp box) eta Urbil Artolak (ahotsa, Dobro, Weissenborn eta gitarra akustikoa) *Kristalezko Kioskoa* musika zikloari amaiera emango diote igandean, uztailak 20, 13:30ean, blues-rockaren benetako boterearekin.

Gurutzaga musikariak Arima Beltza taldean hasi zuen bere ibilbidea eta ondoren Keu Agirretxearen taldeko eta Andranekokide ere izan zen. Jon & Sugramas taldearekin bere lehen bakarkako proiektua sortu zuen, 70. hamarkadara eramaten gintuzten doinu blues eta rockeroak uztartuz. *Hitz Lauz* izan zen Jon Gurutzaga bezala argitaratu zuen estraineko diskoa, lan akustiko eta intimoagoan murgilduta eta ildo beretik,

ibilbide horri jarraipena eman zion 2018an argitaratutako *Kateak* diskoak ere. 2018an argitaratutako EP horren *Desitxuratuz* kantan Urbil Artolak kolaboratu zuen eta hori biok zuzenean aurkezteko proposamenaren eragilea izan da.

Urbil Sorotan Bele taldeko kidea izan zen 90eko hamarkadan eta ordutik hainbat proiektutan parte hartu du bere *steel* gitarrekin. Zazpi urte igaro dira jada laguntzen hasi zirenetik. Azken urteotan, Jonek eta Urbilek ere bat egin dute *Belar Hostoak II* diskoarekin, Txomin Artolak 1978an argitaratu zuen diskoaren berrinterpretazioarekin eta beste hiru musikari gehiagorekin zuzenean eskaintzen ari direna.

Markeliñek "Artilusio" aurkeztuko du

Larunbat honetan, hilak 19, 18:30etik aurrera, Markeliñeren *Artilusio* testurik gabeko lana ikusi ahal izango da Areetako Geltokia plazan, *Getxo Eszena kalean* zikloaren barruan. Don Quixoteri bezala, Greta zaharrari ere buruak huts egiten dio. Liburu eta ipuinen irakurketa konpultsiboagatik ere izango da? Greta maitagarriarentzat liburu bat irekitzea bizitza ikustea da, baina beste era batera.



GETXO KULTURAREN ALDAKETAK ARRETA-ORDUTEGIAN ETA SARRERAK ALDEZ AURRE SALTZEKO ZERBITZUETAN

Jendaurreko arreta-zerbitzua

- Uztailaren 8tik aurrera Muxikebarriko Informazio-bulegoko (Musika Eskolako harrera) jendaurreko ordutegia 8:30etik 14:30era da, astelehenetik ostiralera.
- Romo Kultur Etxean arreta ordutegia 9:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 18:00etara da, astelehenetik ostiralera.

Sarreraren salmenta

Muxikebarriko eta Romo Kultur Etxeko leihatiletan eskaintzen den aurrez aurreko sarreraren salmenta zerbitzuak aldatu ditu.

- Romo Kultur Etxean ez da sarrera salmentarik uztailaren 7tik aurrera, berriki eman arte.
- Muxikebarriko txarteldegia itxi da eta sarreraren salmenta Muxikebarriko Informazio Bulegoan eskaintzen da, 10:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera.

Folk Jaialdiko sarreraren salmenta

- Folk Jaialdiko sarreraren salmentaren hasiera uztailaren 21era arte atzeratuko da, hasieran uztailaren 7rako aurreikusita bazegoen ere.

Berdintasunerako V Planak herritarrei eta udal antolamenduari begirako berdintasun-politiken aldeko bi hamarkadari emango dio jarraipena

Herritarrei eta udal antolamenduari begirako berdintasun-politiketako bi hamarkada baino gehiagoko lan-ibilbidearen emaitza den Getxoko Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana 2025-20230 aurkeztu dute aste honetan Amaia Aguirre alkateak eta Carmen Díaz Gizarte Kohesio-ko zinegotziak.

2024-2027ko Legealdi Planaren barruko agiriak indarrean dagoen legeria eta plangintza estrategikoa aplikatzen lagundu nahi du, bai foru erkidegoan, bai nazioartean. Gainera Emakunde landutako Euskal Autonomi Erkidegoko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 20230 Estrategiaren egitura jarraitzen du. Plana egiteko prozesua hiru fasetan garatu da, hau da, genero-diagnostikoa, IV Planaren egikaritze-balorazioa eta Plana bera egitea.

Alkatearen hitzetan, "Plan hau dokumentu bat baino gehiago da, gure erantzuna da eta gogoratzen digu berdintasuna ez dela helmuga bat, etengabe landu beharreko alderdi bat. Ez dago justiziarik genero-ikuspeirik gabe. Alkate gisa, agenda feminista honekin dudak konpromiso pertsonal eta politikoa berretsi nahi dut. Berdintasuna ez da soilik legezko printzipio bat edo helburu etiko bat: gobernatzeko, planifikatzeko, komunikatzeko, hezteko eta bizitzeko modu bat da", nabarmendu du Amaia Aguirre alkateak.

Planaren egitura

Planak lau ardatz estrategiko, sei esku-hartze programa eta 105 jardueraren neurri aurreikusten ditu. "V. Planak asmo handiko ibilbide-orri eraldatzaile bat markatzen du. Genero-ikuspegia duen gobernu on baten alde egiten dugu, emakumeen ahalduntzearen alde, zaintzan oinarritutako gizarte-antolaketa justu eta iraunkor baten alde, eta indarkeria matxistarik gabeko hiri baten alde. Prestakuntzan, genero-ikuspegiaren aurrekontuen benetako aplikazioan eta emakume kalteberenei emandako arretan jarri dugu asmoa. Gurari Etxea parte-hartze eta intzidentzia feministarako gune gisa hazten jarraitzea nahi dugu, eta benetako erantzunkidetasun publiko baterantz goaz, Getxo berdinzaileagoa, zaintzaileagoa eta bidezkoagoa eraikitze", nabarmendu du Carmen Díaz Gizarte Kohesio-ko zinegotziak. Ardatzak estrategikoak hurrengoak dira:

- **"Gobernu ona"**, erakunde publikoek modu garden, parte-hartzaile eta arduratsuan jarduten dutela bermatzeko, eremu guztietan genero-berdintasuna ziurtatzeko. Neurrien artean aurreikusten dira Berdintasunerako Barne Planak egitea, plan



estrategikoetan, sektorialetan eta aurrekontuetan genero-ikuspegia txertatzea, eta partaidetza Berdintasunerako eta Virginia Woolf Basqueskolan.

- **"Emakumeen Ahalduntzea"**, udalerriko emakumeen ahalduntze soziopolitikoaren benetan sendotzen lagunduko duen sinergiaz sortuz. Ildo horretan, Gurari aukera garrantzitsua da ekimen horiek antolatzen eta parte-hartzea sustatzeko. Berdintasun Kontseilua, partaidetza prozesuak, hezkuntza afektibo-sexualeko programak, Sexu-aholkularitzako bulegoa, GizONegin programak eta sentsibilizazio kanpainak (M8, A25, LGTBI-QA+ kolektiboaren aldarrikapenak) sustatzen jarraituko du Udalak.

- **"Gizarte antolaketa bidezkoa, berdinzailea eta jasangarria"**, Zain-



Jabekuntza Eskolaren ikasturtearen amaiera ekitaldia Gurarin

Amaia Aguirre alkatearen, Carmen Díaz Gizarte Kohesio-ko zinegotziaren eta beste zinegotzi batzuen presentziarekin, Emakumeen Jabekuntza Eskolaren ikasturtearen amaiera ekitaldia izan zen uztailaren 10ean, ostegunetan, Gurari Emakumeen Etxean. 2024/2025eko ikasturtean, 218 emakume parte hartu dute antolatutako 15 tailerretan. Saioak bertan izan dira, Emakumeen Etxea urtarrilean zabaldu zenetik. Ohi bezala, ikastaroak gai desberdinei buruzkoak izan dira, tartean, zoru pelbikoa indartzea, Chi Kung, abesbatza feminista, sormen isildua edo konponketei buruz. Gainera, beste 342 emakume hurbildu dira hilabete hauetan Gurarin antolatutako gainontzeko jardueretara.

tzen Ekonomia Feministaren bitartez. Aurreikusitako neurrien artean sartzen dira familia-zaintzaileentzako prestakuntza bultzatzea, haien osasuna eta forma fisikoa hobetzea, eta, aldi berean, emakumeen osasunari buruz hausnartzea, ikuspegi intersektorialetik, Romon Belau-naldien arteko Zentro bat eta Haurreskola berri bat, eta Algortan Gazteleku berri bat zabaltzea eta hiri errukior eraikitzea.

- **"Getxo, indarkeria matxistarik gabeko hiri"**, Zero tolerantzia programaren bitartez, sentsibilizazio-kanpainekin, jaietan indarkeria matxista prebenitzeko kanpainekin, ikastetxeetan prebentzio programekin, gaitzespen soziala eta instituzionala sustatuz, Getxo indarkeria matxistaren aurkako udalerriko gisa identifikatutako duen seinalekin, indarkeria matxistaren aurrean jarduteko eta koordinatzeko II. Tokiko Protokoloaren betearazpena ebaluatzeko Koordinazio Tekniko-rako Mahaia dinamizatzea, eta abar.

Udal talde politikoaren iritzia



PERTSONEKIKO ETA ESPAZIOEKIKO ERRESPECTUAREKIN EBOLUZIONATZEA

IBAI AZPIKOA

Erantzukizuneko obra, lehenengo egunetik ingurunearekiko elkarbizitza posible egingo duena



HERRITARRENTZAKO INFORMAZIOA

Herrero Txerri Txerriko Agintaritzaren



Bizkaia
foru aldundiak
diputazioak foral

Bizkaia konektatu nahi dugu, gidarienezko oztopo diren errepiderik gabe, gaur egun La Avanzadan eta Errontegin gertatzen den bezala. Hori dela eta, Getxoko eta Sestaoko udalerriak lotzera bideratutako ibai azpiko errepidearen proiektua egitea planteatu da.

Bizkaiko Foru Aldundiak irtenbiderik onena izango dena bilatu nahi du Avanzadan ohikoak diren auto-ilarak ekidin ahal izateko, izan ere, getxotar askok jasan behar izaten ditugu. Avanzadan 90.000 ibilgailu igarotzen dira laneguntan, batez beste. Errontegi da itsasadarraren bi ertzak lotzen dituen pasabide bakarra eta hura 11 kilometrorra kokatuta dago. Foru Aldundiak nabarmendu duenez, itsasadarraren azpiko tunelarekin, Artaza 4 minutuan lotuko da Kantauriko Autobiarekin, Kantabria, Asturias edo Galiziarantz, baita AP-8 eta AP-68rekin ere, Gasteizera bidean, hau da, mesetara,

Madrilera, Andaluziara...

Ondo dakigu, beti, obra handi batek auzokide askoren kezkek ekartzen dituela. EAJ-PNVko kideei ere proiektu honek izan dezakeen eraginak kezkatzen gaitu, baina arduratu gara Aldundiak berak ibai azpiko etorkizuneko urrats nagusi gisa hartzen duenari erantzuteaz.

Itsasadarraren azpiko tunelak ez du auto pribatu gehiago erakarriko, hala adierazten dute garraio publikoko sistema indartsu bat duen ingurune batean zirkulazioa hazten adituak direnek.

Getxo eta Leioa itsasadarraren azpitik Ezkerraldearekin lotuko dituen tunelaren lanek eragozpen txikiagoak eragingo dituzte, maltzurkeriaz, hedatu diren Fake berriek diotena baino. Adibidez, Foru Aldunditik azpimarratu da ez direla 83 leherketa egingo Artaza-Romo inguruko ikastetxeetatik gertu, mikroleherketak izango dira. Horrek esan nahi du, leherke-

ta txikiak direla eragozpenak eta denborak murrizteko aukera emateko. Gainera, ordutegi eta egun jakinetara egokitu ahal izango dira.

Gezurra da, halaber, Artaza parkea kendu eta jendearentzako itxita egongo dela. Foru Aldundiak berretsi du Artazak ez duela galduko berdegunearen milimetro karratu bat ere. Obra amaitzen denean, egun baino hobeto egongo da, hornidura berriekin.

Obra osoak 6 urte baino gehiago iraungo du, lehenengo hiruretan, eragozpenak eta afekzioak sortuko dira, obra guztiak bezala. Proiektuan neurriak hartuko dira Erromo eta Areetako bizilagunei eragozpen gutxi eragiteko. Zarata eta hautsa gutxitzeko pantaila akustikoak, leihoetako isolamendua hobetzeko laguntzak edota atsedinari eragiten ez dioten ordutegiak dira Foru Aldundiak hartuko dituela jakitera eman dituen konpromisoak.



730.000 EUROKO IRABAZIAK "IRURAK BAT" JAUREGITXOAREN ERAIKUNTZA ENPRESARENTZAT

Getxoko jauregitxo historikoa eraistaren ondorioz galera konponezina eman da udal ondareari dagokionez, eta, gainera, hirigintzako irregulartasunen eta gardentasun ezaren adibide kezagarria da. Onetsi zen proiektuan, lautik, hiru fatxada original mantendu behar ziren.

Hala ere, kooperatibak, denak eraitsi zituen, horretarako beharrezko lizentziarik gabe. Jarduketa horri esker, 730.000 euro aurreztu zituen sustatzaileak, eta zigor administratiboak 54.000 euro baino ez ziren. Auzia epai-

learen agindupean dago gaur egun, eta 2024ko abuztutik obrak geldituta daude. bere erantzukizunak kooperatibaren, eraikuntza-enpresaren, arkitektoaren eta obra-zuzendariaren artean banatuta daude.

Getxok oso eraikin entzutetsu bat galdu du. Larriena da ondare apur hori galdu egin dela EAJren isiltasunarekin eta gutxi batzuek onurak lor ditzaten. Alderdi honetatik amaierara arte jarraituko dugu ezagutzen den albiste berri bakoitzaren errepikatzen, kasu hau erabat argitzeko.



ehbildu

730.000 EUROKO ETEKINA IRURAK BAT BOTATZEAGATIK

Irurak Bat jauregiaren eraispin irregularrak, udal gobernuak gure ondare historikoaren aurrean izan duen arduragabekeriaren adibide argia da. Udal txosten tekniko baten arabera, enpresak 730.000 euroko irabaziak izango ditu eraikin historikoa botatzeagatik. Txosten hori Getxoko Udaleko teknikari batek egin du, eta eraikina birgaitzeko lanen kostua kalkulatu du, obra berria egiteko kostuaren aldean. Txostenaren arabera, eraikin historikoa birgaitzeko 3,2 milioi euro inguruko gastua ekarriko luke, eta eraistek 2,5 milioi euro eragingo litzuke. Beraz, enpresak 730.000 euro baino gehiago

aurreztuko litzuke eraikina modu irregularrean eraistez. Egoera larria da, eta ezin dugu onartu legea urratu dutenek gainera etekina ateratzea.

EH Bildutik argi daukagu: ez da nahikoa 50.000 euroko isun sinboliko bat ezartzea. Gutxienez 730.000 euroko zigor ekonomikoa eskatzen dugu, enpresak ez dezan inolaz ere irabazirik lortu eraispeneren bidez. Isuna ez da soilik zigortzeko: prebentziorako ere izan behar du, eta kasu honetan horrek esan nahi du etekina baliogabetzea.

Martxoan EAJk eta PSEk 50.000 euroko isuna jartzea erabaki zuten. Baina datu

berriek argi uzten dute kopuru hori ez dela nahikoa. Ez du ondarearen galera konpentsatzen, eta are gutxiago bermatzen enpresak ez duela etekin ekonomikorik aterako. Beraz, neurriak zorrotzeko unea da.

Gainera, prozedura administratiboan pertsonatu ginen arren, ez ziguten alegaziorik aurkezteko aukerarik eman eta ez ziguten informazio osoa helarazi. Horrek agerian uzten du EAJren eta PSEren Gobernu Taldearen borondate eza; izan ere, PPren laguntzarekin, etengabeko oztopoak jartzen ditu kasu honetan gertatutako guztiari gardentasuna emateko.

Era berean, EH Bildutik gogorarazi nahi dugu Irurak Bat ez dela salbuespena. HAPO berriak ere eraikin historikoaren eraispina aurreikusten du, askotan Eusko Jaurlaritzaren txostenen aurka, eta gure herriaren historia baztertuz. Hau ez da soilik eraikin baten auzia; Getxoko nortasunaren eta memoria historikoaren auzia da.

Ez da berandu zuzendu eta konponbide duin bat emateko. Udalak baditu esku-menak eta tresnak. Gure eskaera argia da: enpresari eragindako etekina baliogabetu, eta ez dadila berriz horrelakorik gertatu.



GETXOK BERDINTASUN POLITIKEN ALDE EGITEN JARRAITZEN DU



ZER GERTATU DA ERREKAGANEREKIN?

Getxon berdintasunaren alde eraikitzen jarraitzeko lan egiten dugu. PSE-EEtik, Carmen Díaz zinegotzia Udaleko Berdintasun Zerbitzuaren buru dugula, aurrera goaz emakume getxotarrek topatzeko guneak izan ditzaten. Guztiok askatasunez bizi ahal izango garen gizarte batean sinesten dugulako, eta emakumeek bizitzaren esparru guztietan presentzia irabaziko dutelako.

Azken urte hau bereziki esanguratsua izan da. Getxoko Jabekuntza Eskolak 200 emakume baino gehiagorekin itxi du ikasturtea. Bertan, jakintzak, esperientziak eta tresnak partekatu dituzte. Espazio bat elkarri entzuteko, ezagutzeko eta batera aurrera egiteko. Beste alde batetik, GURARI Getxoko Emakumeen Etxea inauguratu zen urtarrilean, eta hori mugarririk nabarmena izan da. Etxe hau ekipamendu publiko bat baino askoz

gehiago da, ahalduzko, elkartzeko eta ekintza kolektiborako gune bizia da, berdintasuneko gizarte baterantz aurrera egiteko leku feminista. Hura ireki zenetik, 350 emakume inguruk parte hartu dute lehenengo jarduerari horetan, esaterako, hitzaldi eta erakusketetan. GURARI, dagoeneko, bilakaera sozialaren ikur da. Hori guztia PSE-EErekin egiten ari gara, berdintasunarekin konprometitutako politiken buru izanda.

Errekagane orubea denbora luzez hutsik egon da. Auzokide batzuek erabilera publikoa eman nahi izan zioten baina Udalak hura husteko agindua eman zuen. Prome sak egin dira, gauzatu ez den aurrekontua horretara bideratu da eta proiektu lehia-keta bat ere egin da. Hala ere, han ez dago ezer ez. Heldu da garaia erabilera soziala eta publikoa izan dezan. Auzoak behar du, izan ere, espazio ugari galdu izan dira.